

Ura Vitoria-Gasteizen: kalitatezko funtsezko zerbitzua prezio oso lehiakorrean

Hala ondorioztatzen da Euskadin Familia Gastuari buruz 2023an egindako Inkestatik eta AMVISAREN urteko fakturazioaren azterketatik

EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) **2023ko Familia Gastuaren Inkestaren** datuak aurkeztu berri ditu, euskal etxeetako azken kontsumoaren gastuari buruzko informazioa ematen duena.

Termino absolutuetan, 2023an, euskal etxeen kontsumoaren gastu osoa %5 hazi zen 2022an egindako gastuarekin alderatuta. Etxe bakoitzeko batez besteko gastuen bilakaera igo egin da gastu multzo gehienetan, eta Aisialdia eta Kultura izan da azken urtean gehien igo dena. Lurraldeka, **Arabaren etxe bakoitzeko batez besteko gastua 36.330 €** izan zen, **aurreko urtean baino %3,3 gehiago**, hau da, urtean 1.150 €-ko igoera izan da.


Zehazki ur hornidurari eta saneamenduari erreparaturata, AMVISAREN urteko fakturazioaren datuek 2023an 133 €-ko batez besteko gastua ematen dute etxe bakoitzeko, hau da, batez besteko gastu guztiaren %0,37 (Arabako etxeetarako gastua erreferentziatzat hartuta).

Horrek esan nahi du AMVISAREN zerbitzua duten etxeek hornidura eta saneamendu zerbitzu oso merkeak dituztela, eta horien pisu espezifikoak oso urrun dagoela Nazio Batuek giza eskubide gisa ura eskuratzeko berme unibertsalerako gomendatutako %3tik. Datuek erakusten dute, halaber, ura

eta saneamendua nabarmen merkeagoak direla Gasteizen Euskadi osoan eta estatuko gainerako lekuetan baino.

Horrez gain, euskal etxeek egiten duten gastuaren datuek, zerbitzuen arabera bereizita, adierazten dute zaborren biltetak bakarrik eskatzen diela ahalegin ekonomiko txikiagoa familiei, urari lotutako zerbitzuek baino. Zehazki, elektrizitatea familien gastuaren %1,8 da, gasa %1,3, eta oso gaitetik daude posta, telefonia eta fax zerbitzuak, Euskadin urtean 800 € baino gehiago bideratzen ditugularik horietara, hau da, etxeen gastuaren %2,2.


AMVISA zerbitzua duten Arabako familien urteko batez besteko gastuaren banaketa, gastu multzoaren arabera



Ur hornidura eta saneamenduko urteko batez besteko gastua 2023an, etxe bakoitzeko



Zerbitzuetako urteko batez besteko gastua Euskadin 2023an, etxe bakoitzeko



Iturriak: Familia Gastuaren Inkesta (EUSTAT, 2023), Familia Aurrekontuen Inkesta (INE, 2023) eta AMVISAREN hiruhilekoko fakturazioak (2023)

IRADOKIZUNEN BAT EGIN NAHI DIGUZU, EDO IRITZIA EMAN?

Posta elektronikoz egin dezakezu.

Hau da helbidea:

info@amvisa-futura.org